

## Agente bikoitz baten aitorpenak<sup>1</sup>

Filmak ikustea maite dut. Eta, oroz gain, maite dut filmak ikustea jatorrizko hizkuntzan. Film *noir* on bat bada, are hobe. Dakidan hizkuntza kopurua oso mugatua denez, filmak azpitolatuta ikusi beste aukerarik ez dut gehienetan izaten. Baita telesailak ere. Teknologia berriei esker, telebistako telesail asko entzun litezke gaur egun jatorrizko hizkuntzan. Ia denak, ingelesez, jakina. Baina film eta telesail hauetan ere, gero eta gehiago dira ingelesaz besteko hizkuntzetan mintzo direnak: dela arabiera (terrorista arriskutsuen kasuan), dela urdua (24 orduz zabalik dauden *delietako* langile amorratuen kasuan), edo direla txinera edo errusiera (mafia antolatuetako buruzagiak, elkarri argibide kriminalak ematen). Kontu deigarria da, nola, pertsonaiak ingelesaz besteko hizkuntza batera jauzi egiten duen kasuetan, azpitoluak linbo batean sartzen diren hamarretik zortzitan. Itzulpena esekita bezala geratzen da, hizkuntza horiek ez dakizkigun guztiok mamia ez ulertzera kondenatuz, testua kontestuaren arabera interpretatzera derrigortzen gaituztelarik; ez dago itzulpenik, entzuleak zerbait galtzen du bidean. “Azpitoluuen makina” trabaturik geratu da derrepente, “HABLA EN SU IDIOMA” edo “HABLA CHINO” dioen ohartxo orokor eta murriztaile batekin zuzitzen du bere burua telebistako azpitolatzaileak, “OUT OF ORDER” edo “EZ DABIL, BARKA ERAGOZPENAK” zintzilikatu zaion gailu matxuratu bat bailitzan. Azpittestua, askoz ere maltzurragoa da, ordea: ez dabilena, itzultzailea barik, pantailan dagoen pertsonaia bera dela aditzera ematen baitzaigu, oso modu sotilean (“ongi funtzionatuko balu ingelesez mintzatuko litzateke, ala?”). Zergatik itzulpenaren etena? Ez du, akaso, pertsonaia horrek esaten duenak, arretarik merezi? Ala, hizkuntza bera bihurtu nahi da mezu eta mami, esanahia gutxietsiz? Badirudi, ideia hau barneratua dagoela zinema munduko sortzaile, ekoizle edo ustiatzaileen artean:

---

<sup>1</sup> Bihoa hasi aurretik lehena. Anjel Lertxundik eskuzabalki gonbidaturik Donostian ospatu ziren jardunaldiotan parte-hartzeari baiezkoa eman banion, bi arrazoiengatik izan zen, nagusiki: infiltratu lanetan jende artean ezkutaturik inorenak entzutea jarri zidalako zeregin nagusi, batetik, eta jardunaldiak Aquarium-ean ospatzekoak izanik, Orson Welles *The Lady from Shanghai* filmean bezala sentitzeko poza eragin zidalako horrek, bestetik.

“Zertarako itzuli hegemonikoa ez den hizkuntza? Hobe pertsonaietako bat berriro ingelesez hasi arte azpigiturik ez jartzea”.

Ez da kontu berria. 80. hamarkadan, eta are lehenago ere (haur sasoiari bikoiztuta ikusten genituen artean filmak) Gerra Hotzaren garaian, errusieraz edo japonieraz hitz egingo zuen film iparramerikarreko antagonistak, eta haren hitzak ez zituzten sekula bikoiztuko; etsaiaren logika eta hitzak (hizkuntza) ez ulertzea, tramaren parte zelako, “bestearen” argumentuak ezeztatze modua; haren lantua eta haserrea suma genitzakeen erabiltzen zuen tonuaren eta jartzen zuen aurpegiaren arabera, ez, ordea, bere arrazoibideen hedadura. Ez ulertzearen poderioz, mundu gizatiarretik apartatuak ziren pertsonaia hauek; marmar barbaroa zen garrantzitsuena, itxurazko “artikulaziorik eza”. Paradoxikoki, bikoiztuak eta aktorearena ez beste ahots batekin ezabatuak ez ziren bakarrak “gaiztoak” izaten ziren, haien jatorrizko hizkuntza –guretzat ulertezina– eta haien etsaitasuna bat izan zitezten. Jatorrizko hizkuntza, “jatorrizko gaiztakeriarekin” parekatzen zen, hartara. Haurtzaroko film horiei begira jabetu nintzen lehen aldiz, hiztunek hizkuntza borrokagai hartzeko zeukaten joeraz eta hizkuntzen erabilera ideologiko makurraz. Bazirela, alegia, hizkuntza batzuk kosifikatu edo “hotsifikatu” egiten zirenak, marmar bihurtu. Hiztunaren diskurtsoa eta hark defendatzen zuen mamia indartu edo menostu egiten zen erabiltzen zuen hizkuntzaren arabera. Baziren lehen mailako hizkuntzak, eta baziren (badira) bigarren mailakoak. Hizkuntza batzuk nagusi ziren, jopu beste batzuk. Hemen ere, “bitartekoa zen mezua”, hizkuntza bihurtzen zuten mami, edo, zergatik ez esan, munizio<sup>2</sup>.

*Western* batean ikusiko nuen, ia seguru, nire bizitzako lehen itzultzailea<sup>3</sup>. Esan nezake sioux izan gura nuela, baina

---

2 Witold Gombrowicz handia, gauzak irauli eta itzulipurdikatzeko zeukan gaitasun itzelarekin, hizkuntza “ttipien” patu hau azaleratu eta *ranking*-ak salatzen saiatzen zen *Recuerdos de Polonia* (Versal, 1985) zoragarrian: “¡Ay, esos Balzac, Dickens, esos Proust polacos! No es un Balzac polaco lo que necesitamos, sino justamente un escritor que no se asemeje a nadie, cuya escritura sea única, propia, insustituible, de quien se diría en Francia: «¡Oh, ese escritor nuestro es un Unilowski francés!»”

3 Itzultzailea baino, “interpretea” esan beharko nuke, zehatzago.

gezurra nioke: azal gorriko “beste” horren hizkuntza ezagutzen zuen *cowboya* izan nahi nuen nik, alde bien abantailak eduki. Bataren hizkuntza ezagutu, bestearen bolbora eta arma saldoa eskueran izan. Umea nintzen, baina ez tentela.

Amorru handia ematen zuen nerabe garaian errusiarrak (gaztelaniaz) irakurtzen hasi berritan, tartean frantsesezko esaldiak topatzeak. A zer seta zutena Tolstoiren klase altuko pertsonaiek frantsesezko berben bidez euren burua hotsanditzeko! Eta guk frantsesik jakin ez, izorrai! Zergatik ez zizkiguten, bada, esaldi haiek ere gaztelaniaz paratzen? Errusieraz idatzi zuen idazleak halaxe jarri zituelako, frantsesez, azalduko zigun irakasleak. Arrazoiarekin edo gabe, nagi agertzen zitzaigun itzultzailea eta hankamotz geratzen ulermena. Hemen, ordea, film iparramerikarretako indiar-japoniar ezinago gaiztoen kasuan ez bezala, itzulpenik ezak oso *chic* bihurtzen zituen pertsonaiok, gizon-emakume jantzi, eleaniztun, sofistikatu, zehatz. Zer ematen zuen frantsesak, beraz, errusierak edo gaztelaniaik eman ez zezaketenik? Giza harremanak olioztatzeako balio zuen *politesse*-a, maitasunerako giltza eta zirtorako giroa, idiosinkrasia jaso? Horrelako zerbait. Aitaren metodo zaharkitua hartu eta uda hartan bertan ekin nion, *écoutez et répétez*, frantsesa ikasteari, frantsesik ikasi ezean idazle errusiar bilakatzea zaila izango nuelakoan. Izatez, horixe izan nahi bainuen Dostoievski eta Gógol irakurri ostean, idazle errusiar. Askoz ere gertuagoko zait frantses kultura eta errazagoa zitzaidan frantsesaren trikimailuak neureganatzea, japonierarenak baino, jakina, baina galdera da, film estatubatuarretan japonieraren -eta japoniarren- trataera beste bat izan balitz, ez ote nintzatekeen japoniera ikastera zaletuko eta ez frantsesa? Hizkuntzen gerra horretako peoi ote ginen ni eta nire zirkunstantzia? Batek daki. Raul Zelik, alemaniarra izaki, gaztelania ikastea Hegoamerikako garai zehatz bateko ezkerreko giro politiko batekiko sentitzen zuen erakarmenarekin lotu zuen neurri batean. Ez dakit “kontzeptzio erromantiko” esamoldea erabili ote zuen unereren batean, baina nik halaxe zirriboratu nuen nire oharretan. Zurea ez den beste hizkuntza bat ikastea, finean, beste nortasun<sup>4</sup> bat eskuratzeko

4 Aspaldi ez dela bi gogoeta interesgarri argitaratu dituzte hizkuntza hegemonikoetako bi idazlek, hizkuntza berriak ikastearen motibazio eta prozesuez. Bata, Lydia Davisek (*On Learning Norwegian*,

gurariarekin uste baino lotuago ez ote dago? Hizkuntza berri bat ikastea, zeure buruaregandik atsedean hartzeko modu bat da, funtsean. Zeure buruaregandik urruntzeko era, distantzia hartzekoa. Ihes betearen kimera konfesagaitza, dosi txikitan?

Atentzioa eman zidan Marie Darrieussecq-ek esateak frantsesak “ments dituela alderdi batzuk; adibidez, soinuak edo ehundurak adierazten dituzten eleak ez dira nahi bezainbat eta, bertze hizkuntza batzuen aldean, pobreak dira hotsean eta ehunduran”. Hizkuntza bakoitzaren potentzialtasun eta ahulgune horiek sakonago aztertu beharko genituzke. Ingelesari buruz, kasu, beti esan ohi da haren silaba bakarreko hitz multzo ikaragarria berealdiko abantaila dela pop musika egiteko (bedeinkazio bat Bob Dylanentzat), nahiz eta Jonathan Swiftek madarikaziotzat jotzen zuen (“we are already overloaded with monosyllables, which are the disgrace of our language”<sup>5</sup>). Ivonne Bordelosek, bere aldetik, hizkuntzen arteko oihartzunei buruz egiten du gogoeta: “Una de las consecuencias favorables de la explosión del inglés como lengua global reside en el hecho de que todos aquellos que lo aprenden como segunda lengua están inevitablemente expuestos a desarrollar un segundo oído interior, por el cual las comparaciones léxicas, por inconscientes que aparezcan, son potencialmente conductos de una percepción más clara y aguda de los distintos valores de representación que se dan en diferentes lenguas. De este modo, nuestras palabras adquieren impensadamente perfiles y brillos u opacidades inusitadas al compararse con sus equivalentes -muchas veces sólo aproximativos- en las lenguas que vamos incorporando.”<sup>6</sup>

Hitz hauek idazten ditudalarik, duela bi mila urteko ontzi baten hondakinak aurkitu bide dituzte Mediterraneoko Balear Uharteetan. Arrantzaleek aspaldi hartua zioten

---

Freeman's: The Best New Writing on Arrival, 2015) eta bestea Jhumpa Lahirik (*Teach Yourself Italian*, ingelesez argitaratu zuena *The New Yorker* aldizkariak... Lahirik berak, jatorrian, ikasi berri zuen italieran idatzi ostean!) Ikus:

<http://www.newyorker.com/magazine/2015/12/07/teach-yourself-italian>

<sup>5</sup> *The Works of the Rev. Jonathan Swift, D. D. (The Tattler, No. CCXXX)*. William Durell and Co., 1812.

<sup>6</sup> *La palabra amenazada*. Libros del Zorzal, 2003.

susmoa, itsasalde hartan sareak botatzean anfora zatiak kateatzen zitzaizkiela ikusita. Zientoka anfora dira, itxura batera, hirurogeita hamar metroko sakoneran topatu dituztenak, zer eta, erromatarrentzat jaki kuttun zen *garum*-a garraiatzen zutenak, ustez. *Garum*-a, arrain ustelduz eta tripakiz egindako nahasketa gordin samarra zen, gure gaurko dastamenarentzat bortitz samarra litzatekeena. Erromatarren errezeta preziatuaren interpretazio asko egin dituzten arren, inork ez daki zehazki zein zapore zuen. Orain ere nekez jakingo dugu: anfora haietako *garum*-a joana da, ontziak baino ez dira geratzen. Hizkuntzei buruz esan ohi dugu horixe direla, ontziak baino ez, tresna erabilgarriak, ideiek irauten dutela eta galdu egiten direla bidean hizkuntzak, posible dela Ovidioren jarraitzaile izatea latinik jakin gabe. Baina batzuetan, urpean topatu dituzten anfora hauen kasuan legez, ontzia iristen zaigu eta *garum*-ik ez batere. Javier Cercasek Eta Adan Kovacsics-ek aipatutakoen harira diot hau, idazle baten aberria eta lanabesa “lengoaia dela eta ez hizkuntza” esatean bat etorri baitziren biak. Baina, benetan hain aise bereiz daitezke bata eta bestea, ontzi eta eduki? Zergatik setatzen dira orduan hainbeste Kentuckyko bourbon lantegiak eta bestelako upategiak euren isurgai goxoak “haritz amerikarrez egindako upeletan onduak” izan direla esaten?<sup>7</sup> Aberriari dagokionez, erraza da nork bere burua aberrigabetzat jotzea -sanoa eta derrigorrezkoa ere bai, ziurrenik, pentsalari aske baten kasuan deserri literarioaren intermitentzia balizkoa edo benetakoa besarkatzea: ezein upategitik at gaudela aldarrikatzea-, baina ez ote da ilusio bat baino? Zergatik esaten du, osterantzean, Marie Darrieussecqek frantsesez gogotsuago idazteari ekin ziola García Márquezek “frantsesa hizkuntza hila” zela esan ostean? Zer da hizkuntza bat, beraz, anfora ala *garum*, ezpata ala ezkutu, gezi ala arku?

Sylvia Molloy idazleak pasadizo durduzagarrria kontatzen du hizkuntza bat edo beste hitz egitearen ondorio muturrekoen: “En un disparatado intento de limpiar el país de indeseables, el dictador dominicano Rafael Leonidas Trujillo determinó en 1937 eliminar a los haitianos que casi a diario cruzaban la frontera por razones de trabajo, o que ya la

---

<sup>7</sup> Ados, badakit hori literatura dela. Ez dago deus literarioagorik, alkohol botila baten etiketa baino.

habían cruzado años antes para radicarse en un país que les ofrecía mejores oportunidades. El tamiz por el cual se hacía pasar al presunto haitiano era lingüístico. Se lo detenía, se le hacía decir la palabra *perejil* (o, dicen otros, tijera colorada) y si la pronunciaba con la erre gutural del francés y con la jota trabajosa, se le negaba la entrada y, en más de un caso, se lo mataba.”<sup>8</sup> Badirudi, Rafael Leonidas Trujillorentzat, “lengoaia” ez baizik eta “ahoskera” zela aberria.

Ivonne Bordelois saiatzen da hizkuntzaren ontzi edo *garum* izaera ebazten: “Las lenguas no son sólo construcciones verbales específicas, sino que acarrear con ellas la experiencia de cada nación, experiencia única para la cual existen, por cierto, leyes de traducción y validación en otras lenguas, sin que esto implique eliminar, sin embargo, un residuo intransferible que constituye lo precioso, lo único y necesario de cada lenguaje, o que cada uno aporta irremplazablemente a la mente universal. Lacan ha llegado a decir que el único saber sigue siendo el saber de las lenguas. Las lenguas orientan, fijan y limitan nuestro horizonte cognoscitivo: los celtas no conocían lingüísticamente la diferencia entre el verde y el azul, ante la muerte, los yámanas –que carecen del verbo morir– dicen que los hombres se pierden, pero los animales se rompen (...). Pero además [a las lenguas] hay que hacerlas dialogar entre sí, del mismo modo que los anfitriones presentan a los amigos para alcanzar la diversidad y la plenitud de la fiesta.” Horrek gogorazi dit norbait hiltzen denean “ezkutatu” egin dela esan ohi dela euskaraz. Betidanik egin zait deigarri “natura hila” esaten diogun horrentzat anglosaxoniarrak esapide baikorragoa izatea: “Still life” (“bizitza geldia” literalki, “still alive”, edo “oraindak bizirik” esamoldetik hain gertu dagoena, bestalde). Kasu hauetan, ez ote dago esaterik hizkuntza ere badela idazlearen aberri, nola izan daitekeen hiztunaren hautazko aberria “cáncer” deritzona pairatu beharrean “minbizia”<sup>9</sup> pairatu nahi

---

8 *Vivir entre lenguas*. Eterna Cadencia Editora, 2016.

9 Bordeloisek, aurrez aipatu liburuan adibide argigarri askoak ematen dizkigu: “Los ingleses hablan de sentencias (*sentences*), es decir, que se sienten jueces dirigiéndose a acusados; nosotros, en *oraciones*, dirigiéndonos como creyentes, a través de nuestros interlocutores, a Dios; más prácticos y racionales, los holandeses hablan de

duenarena? Gauza bera ote da “hablar con uno mismo” edo “norbere buruari hitz egitea”? Ez ote da eleaniztasunaren abantaila hizkuntza bakoitzak eman dezakeen hipotesirik baikorrenaren uzta norberaren egiteko aukera -*aberrianiztasuna*, hain zuzen-?

Miguel Saénzek gogorarazi digu, Pasternaken ustez, bere libururik onena Goetheren *Fausto* maisulanaren itzulpena zela. Gauza bera entzun genion behin Javier Mariasi Laurence Sterne-ren *Tristram Shandy* aipatuz. Joseba Sarrionandia bera, idazle bezain itzultzaile ez ote da? Izan ote liteke inor benetan idazle, lehenago, ondoren edo aldi berean, itzultzaile -sikiera intrakraneal, sikiera ezkutuko- izan gabe? Ez ote da idazlearen lana *garum*-a ontzi batetik bestera aldatzea, harik eta anforak *garum*-aren kutsua bereganatu arte, eta alderantziz?

Hizkuntza bat utzi eta beste bat besarkatzeak nortasun aldaketaren fantasia eragiten badu -eman atsedean zure *zu bati* eta asmatu *zu berri bat*-, beretsu gertatzen zait idazle izateari utzi eta itzultzailearen larruan sartzen naizenean. Nortasunaren aldaketaren eta azalberritzearen sentipen kitzikagarria eragiten didala horrek, alegia. 2008. urte inguruan Granadara joan nintzen, liburu bat besapean. Poema bilduma bat zen, euskaraz idatzi eta neronek gaztelaniara itzulia. Entzuleek hala eskatuta, poema batzuk ele bietan irakurri nituen, euskaraz lehenbizi, gaztelaniaz gero. Emanaldiaren amaieran, emakumezko atsegin bat inguratu zitzaidan euskararen musika zein gustuko izan zuen esatera. Berrogeita hamar urteak ongi beteak izan arren, euskara bertatik bertara entzun zuen lehen aldian zela esan zidan. “Creía que era un idioma más violento” aitortu zidan, hizkuntza bati atxiki dakizkiokeen bertute-akatsen artetik guztiz bateraezina zen adjektibo *fatala* ahoskatuz. Atsegina izateaz gain tuntuna ez baitzen emakumea, hanka sartu zuela jabeturik, berehala saiatu zen zehazten: “Lo que quería decir es que creía que se parecía más al alemán”. Konpondu beharrean, putzuan plaust egin zuen ñabardura

---

significados (*zinnen*); y los franceses típicamente, incurren en frases (*phrases*), ya que la frase es la unidad rítmica fundamental. Metafóricamente, el inglés considera el acto de hablar como un juicio, el holandés como una afirmación de sentido, el francés como una danza y el español como una ocasión de rezar, de hablar -con dios primero”.

harekin, baina ez zait adibide hoberik bururatzen hizkuntzari herritar inkontzienteak erants diezazkiokeen zamak eta estigmak azaltzeko. Ulertu ere, ezin hobeto ulertzen bainuen emakume hark zuen hizkuntzarekiko aurrejuzkua, nire irakurketaren ondoren, onerako aldatua: “Nazien filmetako aleman zaunkari huraxe da hizkuntzarik biolentoena, holokaustoaren hizkuntza ofiziala, eta euskara ere, fikziozko etakideen filmetan eta manifestari zakarren oihu eta aldarrietan baino entzun ez dudana, ez dabilkio urruti”. Darriussecqek primeran azaldu zuen: “Zaila da, hemen Frantzian, gutiengoa dena bertzela hartzea: iduri du gutiengoa agertzea haren apologia egitea dela”. Apologistatzat gauzkate, baina ez gara. Gutxiengo izatea eta hala agertzea, noiztik da apologia? Betidanik, nonbait. Entzulearen baitan dago arazoa: euskara entzuten du hainbatek, guk *western*etako siouxak edo mafiakide errusiarrek entzuten genituen ber gisan, azpitulurik gabe (“HABLA VASCO, OUT OF ORDER”). Nola ulertarazi munduari hizkuntzek ez dutela arimarik? Italiara, demagun, *cosa nostratik* eta operako arietatik haratago doan hizkuntza dela, mafiaz eta lirikaz gain beste dimentsio eta esparruetarako baliagarri? Erosoegia da, ordea, mundu globalean etiketekin *cuattro stagioni* bat egin eta gauza guztiak dagozkion apalean daudela sinetsita lasai demonio geratzea. Denok egiten dugu. Nori ez zaio, bada, lasai bizitzea gustatzen?

Euskaraz idatzi eta geure burua gaztelaniara itzultzen dugunok piztiarioko pieza gara, agian. Saguaren burua eta lehoiaren isatsa dudala senti nezake batzuetan, bi hizkuntz komunitatetan *nagoela* eta bi komunitate literario ezberdinetan *naizela* –eta, gainera, bi ogibide berdin ruinosotako<sup>10</sup> partaide–, baina, aldi berean, ez nagoela eta ez naizela ez batean eta ezta bestean ere. Schrödingerren katua bezala, kutxa barruan nago eta ez nago. Eta gustatzen zait egon gabe egote hori, eroso nago, bat dator hau nire izaera eta nortasun intermitente eta zalantzakorarekin, atean edo leiho bazterrean egongelaren

---

10 Honatx euskaraz mintzo naizenean etengabe erabiltzen dudana gaztelaniazko hitza: *ruinoso*. Iragazkorra baita hizkuntzen arteko harremana, itzultzen ez dakigunak edo itzuli nahi ez dugunak definitzen gaituelako akaso, eta zenbait hitz ez itzultzearen plazera norbere buruari ematea bezalakorik ez dagoelako. Berdin egiten zuten idazle errusiarrek frantsesarekin, ala?



erdian baino gusturago egoten direnetakoa naizenez. Nire burua liburu berbera birritan bi hizkuntza ezberdinetan aurkezten harrapatzen dudanean (batzuetan urteak igaro direlarik jatorrizko edizioa argitaratu zenetik), fartsante sentitzen naiz, bigarren eskuko autoen saltzaile setati, nire buruarekiko izan dezakedan mesfidantza eta distantzia ironikoa handitu baino ez du egiten ispiluen jokoak, kontraesanak azaleratu egiten dira, eta nortasun, hizkuntza, eta are, lengoaia berri baten bilaketan saiatu beste aukerarik ez zait geratzen nire burua nolabait erredimituko badut, handiegia baita gogoia esateko: “Liburu hau ez da nire gaurko niarena, beste ni urrun batena baizik”. Izan ere, erabat elebiduna izatea posible al da, *fifty fifty*? Ezezkoan nago. Eta posible al da, bestalde, idazle eta itzultzaile izatea, erdi eta erdi? Hor ere ezezkoan nago. Ilusio bat da “eleaniztasun proportzionala”, nola den ilusio bat ogibide bien simetria. Beraz, eta simetriaz hitz egitea ezinezkoa den heinean, hizkuntzek eta ogibideek geure burmuinetan duten hedadura errizomatikoa onarturik, beti dago bat nagusitzen dena. Euskaraz idatzi eta gaztelaniara itzultzen dut nire burua, desagertzeko arriskutik urrun ez dagoen hizkuntzan sentitzen naiz idazleago, baina ez diot muzin egiten lehoibuztan izan naitekeen komunitate literario hegemoniko batean gaztelaniazko *avatar* bat sortzeari. *Second life*. Espioitza joko bat da, infiltratu bat naiz, agente bikoitz.

Gero eta gehiago, nire aberria itzulpena dela sentitzen dut; ez hizkuntza, ezta lengoaia ere, baizik eta itzulpenaren ariketa. Eta baita nire ofizioa ere: *traducere*, zerbait leku batetik bestera eramatea baita latinez, mugitzea, alegia. Baita ofizio batetik bestera mugitzea ere. Jean-Luc Godardek ezin hobeto azaldu zuen: “Garrantzitsuena ez da nondik ateratzen dituzun gauzak, baizik eta nora eramaten dituzun”. Itzultzailea eta idazlea, ondorioz, gauzak garraiatzeaz arduratzen diren jendea dira, mudantza batzuetan erraz eta beste batzuetan konplikatua egiten saiatzen direnak<sup>11</sup>. Hizkuntza hegemoniko eta ez hegemonikoen arteko bidea, etxe handi eta etxe ttipien artekoa balitz, onartu beharko genuke etxe ttipiek ere badituztela beren xarma eta abantailak (dena eskura izatea eta hautsak garbitzen denbora gutxiago pasatzea,

---

11 Eta Miguel Saénzek Guillermo Brownen hitzak mailegatuta gaztigitzen digun legez, “beti apurtzen da zerbait etxe-aldaketatan”.

demagun). Joan-etorriko bide horrek, garraio lanak, lur irmorik ezak, hizkuntza batetik bestera etengabe intermitentzian aritzeak, indartu baino ez du egiten nire ahultasuna, gure ogibide hauskorrearekiko dudak ikuspegi ironikoa, bizi ikuskera oso bat harrapatzen duena, pixkana-pixkana eta tantaz tanta iragazten doan jarrera hau nongotasunaren erroa pitzatzen ari balitzait bezala (Adan Kovacsicsek aipatzen du hegemoniko ez diren hizkuntzen ezaugarrietako bat dela pitzaduren hau), halako moldez non, Javier Cercasi arrazoia emanek, anfora hautsi, hizkuntzaren mintza suntsitu eta *garum*-arekin bat egiteko zorian bainago. Marie Darrieussecqek “euskaletan idazle frankofono europar” bezala deskribatu bazuen bere burua, “idazle alderantzizkagarri eusko-europartzat” deskribatu beharko nuke nik nirea, alde bietatik jantzi daitezkeen arren ia beti alde berera daramagun jake *reversible*<sup>12</sup> horien gisara. Bigarren alde, alde erantzia, barrukoa, ihauteri eta kamuflaje asmoekin soilik erabiltzen ote dut? Ez litzateke txarra hala balitz, jai-asmoak eta intentzio jostariak ez baitira inoiz gutxietsi behar, batez ere ni bezalako agente bikoitz baten kasuan<sup>13</sup>.

Karlos Cidek Milan Kunderak itzultzaileekiko duen jelsia profesionala aipatu zigun, nola hizkuntza ezagutzen ez zuen kasuetan ere badituen Brno-ko idazleak bere “berifikazio teknikak” itzulpena ona ote zen ala ez jakiteko. Itzultzaileak Europa eraikitzen duten langile apalekin alderatzen ditu Kunderak. Zentzu berean, esana zuen inoiz Umberto Eco ere Europako hizkuntza komuna ez dela ingelesa, baizik eta itzulpena bera, itzultzearen ariketa, etengabeko jarduna, hitzak balantzan eta zalantzan jartzeko modu sanoa, amaierarik gabeko ikasgaia, latinezko *traducerea*, lekuz mugitzea, hitzen eta mugarrien garraio.

Hedapen urriko hizkuntza batean idaztearen nekerik handiena ez da, nire ustez, balizko tradizio falta edota *le mot juste* hori aurkitzeko zailtasun gehigarri bat izatea, baizik eta hizkuntzaren giharrak benetako bizitzan egiaz bereganatu ez dituen lurralde eta giroak fikzioan birsortu beharra (fikzio bikoitza: existitzen ez den erregistro edo giro linguistiko bat existitzen dela irudikatzearen fikzioa, lehenik,

---

12 Ikus 10. oharra.

13 Agente bikoitza bai, baina agente bikoitz (edo hirukoitz) onek bezala, inongo zerbitzu sekretuentzat lan egiten ez duena, ezpada nire buruarentzat.

gehi, simulakro hori fikzioan funtzionaraztea, gero). Geure epaitegiak, aireportuak, osasun zentruetako asko, hoteletako ia gehienak, ezlekuak dira euskararentzat. “Life vest under your seat” ez da sekula euskarara itzulia eta Airbus bateko besaulkiaren bizkarrean izkiriatura izan. Hotel batean ez didate sekula galdetu euskaraz “¿Ha consumido usted algo del minibar?”. Une horietan sentitzen dut hizkuntza hegemonikoen inbidia gehien. Esaldi horiek errealitatean euskaraz inork existiarazi ez dituenek, fikzioan haiek kokatzea nekagarriagoa dateke. “FUMAR MATA” esaldia ez du sekula irakurriko euskaldun batek tabako pakete batean<sup>14</sup>. Unibertsitatean hizkuntza juridikoa asko garatu den arren, epaien ehuneko %99a gaztelaniaz ematen da Euskal Herrian. Hara hor idazlearen zeregina: fikzio bikoitza. Ez dago gaztelaniaz emandako epai bat euskaratzen saiatzea bezalakorik hizkuntzaren tranpak eta hautsak astintzeko: “el juicio cautelar debe valorar circunstancialmente el interés del conflicto que la ampara, es decir, el cómo y el cuándo se ejercita, frente al grado de madurez y consolidación que ofrezcan las decisiones sobre las que se intenta incidir o impactar, que en este caso resulta claramente decantado en favor del interés público en la ejecución” bezalako esaldi baten aurrean, itzulpen on bat izan liteke erasorik -apelaziorik - onena. Benetan behar da halako hizkuntza hanpatua XXI. mendean epai bat emateko? Zertara datoz “incidir o impactar” bezalako hitz ez-juridikoak? Binaka eman behar dira beti hitzak (“madurez y consolidación”) argudioak indartuko badira? Benetan zaila da gaztelaniazko jerga juridiko zaharkituaren aurrean *refresh* botoiari sakatzeko modu bat bilatzen ez saiatzea. Hizkuntza hanpatuak eta haren ezkutaketarako joerak, sumindu egin gaitzakete eta korrika batean beste hizkuntza baten babes eta abarora -bi hitz erabiltzeagatik nik ere- bultzatu.

Adan Kovacsicsek Ernest Benz ekarri zuen akordura, lengoaiaren garapenaren azelerazioak lengoaiaren suntsipenera ote garamatzen susmoa agertzeko. Suntsipen hori hemen dago, geure begi eta belarrien aurrean gertatzen ari da, eta ez da Amazoniako oihanarena baino onberagoa.

---

14 Iparramerikarrak bagina, honezkero eraman genituen epaitegietara, geure birika porrokatuen errua tabako konpainia erraldoien hizkuntz politika eskasari egotzita.

Idazlearen zeregina, itzultzailea izatea da agian, honenbestez. Agente bikoitza. Makinak eta itzultzaile automatikoak isiltzen direnean, azpitoluek "HABLA EN SU IDIOMA, EZ DABIL" zurigarriarekin eskuak garbitzen dituztenean, *hotsifikatutako* guneen interpretazioa egitea eta hots horietatik zentzua, diskurtsoa, arrazoiak destilatzen saiatzea da gure lana. Abiaduraren kontra, ahots bakarraren kontra. Hautsitako anforekin, egin dezagun anfora berri bat. Pitzadurak agerian dituen anfora berri zahar bat. Eta berriro apurtu. Eta beste bat egin. Eta berriro apurtu. Eta beste bat egin. Jatorririk gabe, amaierarik gabe. Zenbat eta pitzadura gehiago, are artezago gu puska ttipiak itsasten. Hautsi da anfora, eta berregin dugu. Berriro lurrera bota eta hausten ikusteko.

Anjel Lertxundiren ariketaren ispilu alderantzizkatuan neure burua *The Lady from Shanghai* filmeko azken sekuentzian bezala ipiniz gero, gustatuko litzaidake sinestea, hizkuntza hegemoniko batean idatziko banu, itzultzen duena (eta itzultzen dena) izango nintzatekeela. Etxe ttipietatik handietara eta handietatik ttipietara altzariak eramaten dituen. Geldirik ez dagoena. Daramagun, dakargun eta demagun gehiago eta demagogia gutxiago praktikatzen duen norbait.

Harkaitz Cano (2017-02-13)